upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Consejo de Gobierno/Gorbernu Kontseilua
Sesión/Bilera: 29-3-2019

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## ACUERDO POR LA QUE SE APRUEBA LA MODIFICACIÓN DE LA OFERTA DE TÍTULOS PROPIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2019-2020

De acuerdo con el artículo 2 de las Normas reguladoras de los Títulos Oficiales de Máster y Enseñanzas Propias de la Universidad Pública de Navarra, la Comisión de Estudios es el órgano competente sobre las cuestiones que afecten a las enseñanzas que den lugar a títulos y certificados propios, diferentes de aquellos otros de carácter oficial

Conforme a lo establecido en el artículo 67 y siguientes de la citada normativa, el Consejo de Gobierno aprobó, en sesión celebrada el 27 de febrero de 2019, la oferta de Títulos Propios del curso 2019-2020 propuesta por la Comisión de Estudios de la Universidad.

Posteriormente, la Comisión de Estudios, en sesión celebrada el 18 de marzo de 2019, ha acordado informar favorablemente y proponer al Consejo de Gobierno la ampliación de la oferta con seis Títulos Propios, dos de nueva implantación y cuatro impartidos en los últimos cursos académicos cuya oferta se renueva.

Asimismo, en la citada sesión también ha acordado no renovar la oferta de otro título propio impartido en los últimos cursos académicos. Conforme al artículo 68 de la normativa debe facilitarse a los estudiantes ya matriculados que completen los créditos del Título Propio que aún puedan tener pendientes.

A propuesta de la Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Emprendimiento, el Consejo de Gobierno previa deliberación de sus miembros, en sesión celebrada el día 29 de marzo de 2019, adopta el siguiente:

### ACUERDO

Primero.- Aprobar la implantación, para el curso académico 2019-2020, de los siguientes Títulos Propios:

- Experto universitario en nuevas tecnologías para la agricultura de precisión
    - Certificado de extensión universitaria en nuevas tecnologías para la agricultura de precisión
- Experto universitario en gestión de empresa familiar

## ERABAKIA, TITULU BEREKIEN 2019-2020 IKASTURTERAKO ESKAINTZAREN ALDAKETA ONESTEN DUENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Master Titulu Ofizialei eta Ikasketa Berekiei buruzko Araudiaren 2. artikuluarekin bat etorriz, Ikasketa Batzordea da titulu eta ziurtagiri berekiak lortzeko ikasketei buruzko kontuen gaineko eskumena duen organoa.

Arau horien 67. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez, Unibertsitateko Ikasketa Batzordeak proposatutako titulu berekien 2019-2020 ikasturterako eskaintza onetsi zuen Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 27ko bileran.

Geroago, Ikasketen Batzordeak, 2019ko martxoaren 18ko bileran, 2019-2020 ikasturterako eskaintzari aldeko iritzia ematea erabaki zuen, eta Gobernu Kontseiluari proposatzea titulu berekien eskaintza horri sei titulu bereki gehitzeko, hau da, ikasturte honetan bi titulu berri ezartzeko eta aurrekoetan irakasten ziren beste lau berriz eskaintzeko.

Bilera horretan, bestalde, erabaki zen azken ikasturteetan irakasten zen titulu bereki bat ez eskaintzea. Ikasketa Berekiei buruzko Araudiaren 68. artikuluaren arabera, ikasleei aukera eman behar zaie titulu berekia bukatzeko geratzen zaizkien kredituak gainditzeko.

Ikasleen Gaietarako, Enplegurako eta Ekintzailetzarako errektoreordeak proposaturik, hau da Gobernu Kontseiluak, bere kideek aldez aurretik deliberatu ondoren, 2019ko martxoaren 29an egindako bileran, hartu duen

### ERABAKIA

Lehena.- Onestea honako titulu bereki hauek ezar daitezela 2019-2020 ikasturterako:

- Unibertsitateko Aditua Doitasuneko Nekazaritzarako Teknologia Berrietan
    - Unibertsitateko Zabalpeneko Ziurtagiria Doitasuneko Nekazaritzarako Teknologia Berrietan
- Unibertsitateko Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan

Segundo.- Aprobar la renovación, para el curso académico 2019-2020, de los siguientes Títulos Propios:

- Diploma de especialización en género
- Diploma de especialización en intervención social con familias, infancia y adolescencia
- Diploma de especialización en investigación especializada en trabajo social
- Diploma de extensión universitaria en humanidades y ciencias sociales

Tercero.- No renovar, para el curso 2019-2020, la oferta del Título Propio de Diploma de especialización en inmigración e intervención social.

Los estudiantes que hubieran cursado este Título Propio en cursos anteriores y tuvieran créditos pendientes de superar, podrán solicitar matricularse en el curso 2019-2020 de la totalidad de los mismos.

Cuarto.- Trasladar el presente Acuerdo al Vicerrector de Economía, Planificación y Profesorado, a la Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Emprendimiento, a la Gerente de la Fundación Universidad-Sociedad, a la Sección de Acceso, Becas y Títulos, y a los responsables académicos de los Títulos.

Quinto.- Publicar el presenta acuerdo en el Tablón Electrónico de la Universidad Pública de Navarra

Sexto.- A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa, contra el mismo podrán los interesados interponer potestativamente recurso de reposición, ante el Consejo de Gobierno, en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional del Tribunal Superior de Justicia de Navarra; contados ambos recursos desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios electrónico de la Universidad.

Bigarrena.- Onestea honako titulu bereki hauek berritu daitezela 2019-2020 ikasturterako:

- Espezializazio Diploma Generoan
- Espezializazio Diploma Familia, Haur eta Nerabeekiko Esku-hartze Sozialean
- Espezializazio Diploma Gizarte Lanean Espezializatutako Ikerketan
- Unibertsitate Zabalpeneko Diploma Giza eta Gizarte Zientzietan

Hirugarrena.- Onestea honako titulu bereki hau ez dadila berritu 2019-2020 ikasturterako: Espezializazio Diplomaren Titulu Berekia Immigrazioan eta Gizarte Esku-hartzean.

Titulu bereki hori aurreko ikasturteetan ikasi duten ikasleek gainditu gabe badituzte oraindik kreditu batzuk, zilegi dute eskatzea gainditzeke dituzten kreditu guztietan 2019-2020 ikasturtean matrikulatzea.

Laugarrena- Erabaki hau helaraztea Ekonomia, Plangintza eta Irakasleen Gaietarako errektoreordeari, Ikasleen Gaietarako, Enplegurako eta Ekintzailetzarako errektoreordeari, Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren kudeatzaileari, Sarbidea, Bekak eta Tituluak Atalari eta tituluen irakaskuntza-arduradunei.

Bosgarrena- Erabaki hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratzea.

Seigarrena.- Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikuluak eta Unibertsitatearen Estatutuen 144.1 artikuluak ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta interesdunek zilegi dute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jartzea Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean. Bi errekurtsoetarako epeak erabaki hau Unibertsitatearen iragarki-ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

EL PRESIDENTE
KONTSEILUBURUA

Alfonso Carlosena
Rector/Errektorea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa